

NAFARROAKO ANALISI ETA PROSPEKTIBA BULEGOA


2025 MEMORIA



Analisi eta Prospektiba

Bulegoaren xedea da Nafarroako errealitate soziala, ekonomikoa eta politikoa aztertzea, etorkizuneko egoerei aurrea hartzea eta erabakiak ahalik eta hobekien hartzea politika publikoak diseinatu eta ebaluatzen direnean.

Analisi eta Prospektiba Bulegoak metodologia zorrotza erabiltzen du, ebidentzian oinarritua, eta haren bidez Nafarroako Gobernuaren ekintza indartzen eta herritarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.



OFICINA
DE ANÁLISIS Y
PROSPECTIVA
DE NAVARRA

NAFARROAKO
ANÁLISI ETA
PROSPEKTIBA
BULEGOA



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Departamento de Presidencia e Igualdad
Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua



Bulegoaren bigarren jarduera-urtean, haren egitura sendotu da eta lan-ildo nagusiak abiarazi dira. Urriaren 11ko 217/2023 Foru Dekretuaren bidez sortu zen Bulegoa, arau horren bidez erakunde autonomoa sortu eta estatutuak onetsi baitziren. Ordutik hona, metodologiak, prozesuak eta aliantza estrategikoak definitzen aritu gara, gure helburuak bete ahal izateko.

Gure erantzukizunaren esparruan, urteko bigarren memoria honetan jasotzen dira 2025. urte guztian egindako jarduketa nagusiak, eta

landutako arlo estrategiko bakoitzean izandako aurrerapenak nabarmentzen dira: errealitatearen azterketa, etorkizun posibleen prospektiba eta politika publikoetan erabakiak hartzeko laguntza ematea. Gainera, zeharkako ekimenak ere jaso dira, zabalkundearen, komunikazioaren, prestakuntzaren eta sektore anitzen arteko lankidetzaren arlokoak, haien bidez indartzen baita gure lanak duen eragina, baita Administrazioarentzat eta Nafarroako gizartearentzat duen erabilgarritasuna ere.

Agiri honetan lantzen den urtean erronka konplexuak eta eraldaketa nabarmenak izan dira, bai maila globalean, baita tokikoan ere.

Mundua gero eta interkonektatuago dago, eta, beraz, aldaketa-prozesu horiek Nafarroan ere izan dute eragina, ingurune globalizatu horren parte den aldetik, Nafarroak ere bere erronkak baititu. Ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna nagusi diren eraldaketa-egoera horretan, gizarteak, berehalakotasunak harrapatuta eta etorkizun ziurgabearen pertzepzioak sortutako antsietate eta kalteberatasun kolektiboak eraginda, konponbide errazak nahi ditu arazo konplexuentzat. Antsietate sozial hori ziurgabetasunaren eta arriskuen ondoriozkoa da, eta horrek maila guztietan eragiten duen segurtasunik gabeko giroa sortzen du. Testuinguru horretan, Analisi eta Prospektiba Bulegoak, Foru Administrazioaren unitatea den aldetik eta zeharkako ikuspegiarekin, errealitatea aztertzeke eta sortzen ari diren joerak identifikatzeko ahaleginak areagotu ditu, eta ezagutza sortu du Foru Komunitateak datozen urteetan aurre egin beharko dien erronkei aurrea hartzeko.

Horregatik, informazio objektiboa oinarri duten analisi zorrotz eta egiazkoak egin behar dira, erabakiak hartzeko ezagutza sendo eta funtsatua ematen laguntzeko. Gure lana informazio irisgarria eta fidagarria eskaintzeko konpromisoak gidatu du, eta eguneroko jarduera zeharkako ikuspegi batetik landu dugu: inkesten emaitzak, hala nola herritarrek zerbitzu publikoei buruz duten pertzepzioa; ikerketak, hala nola X-ko (lehen Twitter) gorroto-diskurtsoen analisia edo salgaien trafikoaren azterketa, errepideko garraioa trenbideko garraiora aldatzea aztertzeke; edo ikuspegi prospektiboko lurralde-diagnostikoak, hala nola Erriberan erronka eta aldagai estrategikoak identifikatzea edo industriak Sakanan duen egoerari buruzko diagnostikoa.

Nafarroako Gobernuko hainbat departamenturen, erakunde publikoen eta gizarte zibileko hainbat entitaterekin lankidetzari esker egin ahal izan dugu lan. Era berean, aliantzak finkatu ditugu nazioko eta nazioarteko erakundeekin, ezagutzaren eta jardunbide egokien trukea errazteko.

Urteko memoria hau, egindakoaren testigantza bat izateaz gain, gure analisi- eta prospektiba-gaitasuna hobetzen jarraitzeko tresna ere bada. Politika publikoen ebaluazioan bikaintasunarekin, gardentasunarekin eta berrikuntzarekin dugun konpromisoa berresten dugu, sinetsita baikaude errealitatea hobe ezagutzeak arlo publikoa hobe kudeatzen laguntzen duela.

Eskerrik asko 2025ean Analisi eta Prospektiba Bulegoarekin lankidetzan aritu diren pertsona eta erakunde guztiei, eta espero dugu memoria honek egindako ahalegina eta lortutako aurrerapenak islatzea. Zorroztasun eta konpromiso berarekin jarraituko dugu lanean, egungo eta etorkizuneko erronkei Nafarroarentzat estrategikoa eta jasangarria den ikuspegiarekin aurre egiteko.

ANTOLAKETA FILOSOFIA

Analisi eta Prospektiba Bulegoa Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuaren parte da, eta Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiari atxikita dago.

Eskumenak erakundea sortzeko eta haren estatutuak onesteko urriaren 11ko 217/2023 Foru Dekretuan daude jasota.

Honako eskumen hauek ditu:

- a. **Identifikatzea zer erronka eta aukerari egin beharko dion aurre Nafarroak** gaur egun zein epe ertain eta luzean, informazioaren azterketa sistematikoa eginez, zeinak ebidentzia enpirikoa eta zorrotza emanen baitu erabakiak hartzeko orduan.
- b. **Zeharkako politika publikoen eta horien eragin, eraginkortasun eta efizientziaren planifikazio, jarraipen eta ebaluazio etengabea laguntzea.**



- c. **Berrikuntza publikoko prozesuen plangintzan, jarraipenean eta ebaluazioan laguntzea eta orientatzea.**
- d. **Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusia orientatzea erabaki estrategikoak hartzerakoan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organoetan zeharka jardunez.**



ANALISI ETA PROSPEKTIBA BULEGOAREN EGITURA

Foru Dekretua apirilaren 30eko 45/2024 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen. Bertan, atal berri bat sortu zen erakunde autonomoaren barnean, hasierako dekretuaren 17. artikulua aldatuz. Horrela, Analisiaren, Ebaluazioaren, Berrikuntzaren, Prospektibaren eta Estrategia Operatiboaren Zerbitzua bi ataletan egituratu da:

Analitika Aurreratuaren eta Prospektibaren Atala


Estrategia Operatiboaren eta Ebaluazioaren Atala

Analitika Aurreratuaren eta Prospektibaren Atalak eginkizun hauek izanen ditu:

- Nafarroako gizartearen egungo egoera, gizarte-eraldaketako prozesuak eta aldaketa-joerak aztertzea, NASTATEkin eta departamentuekin lankidetzan, behar diren irizpideak edo ikuspegiak txertatuz ezagutza hobea izateko, besteak beste, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan, sexu orientazioaren arloan, genero-adierazpenaren edo sexu-identitatearen arloan eta irisgarritasunaren eta desgaitasunaren arloan.
- Analisi prospektiboa, identifikatzeko zer erronka eta aukerari egin beharko dien aurre Nafarroak epe ertain eta luzean (demografikoak, ekonomikoak, geopolitikoak, ingurumenekoak, sozialak, hezkuntzakoak, etab.) eta haietarako prestatzen laguntzeko.
- Erabaki estrategikoak hartzeko aholkularitza, dakartzaten ondorioak kontuan hartuta.
- Aipatutakoen antzekoa edo osagarria den beste edozein eginkizun, bai eta agintzen zaizkionak ere.

Estrategia Operatiboaren eta Ebaluazioaren Atalak eginkizun hauek izanen ditu:

- Nafarroako Gobernuaren estrategia operatiboa diseinatzen, gauzatzen, ebaluatzen eta haren jarraipena egiten laguntzea.
- Politika publikoen plangintza operatiboa egiten laguntzea.
- Aholkularitza ematea Nafarroako Gobernuko departamentuei politika publikoen diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan.
- Nafarroako Gobernuaren berrikuntza publikoko prozesuen plangintzan, jarraipenean eta ebaluazioan lagun egitea eta orientatzea.
- Analisiaren, Ebaluazioaren, Berrikuntzaren, Prospektibaren eta Estrategia Operatiboaren Zerbitzuaren urteko lan-planean esleitzen zaizkion ebaluazioak egitea eta gainbegiratzea.
- Aipatutakoen antzekoa edo osagarria den beste edozein eginkizun, bai eta agintzen zaizkionak ere.



APB-aren egiturari

Analisi eta Prospektiba Bulegoaren egiturari dagokionez, honako hauek osatzen dute: kudeaketako zuzendaritza batek, zerbitzu zuzendaritza batek, ataleko bi burutzek, negoziatu batek, soziologiako bi profilek eta estatistikako profil batek.

- Zuzendari kudeatzaile bat
- Zerbitzu zuzendari bat
- Bi atalburu
- Bulego bat
- Bi soziologo
- Estatistikari bat



Fandis Vacuero - Turismo de Navarra

XEDEA ETA IKUSPEGIA

Analisi eta Prospektiba Bulegoaren **ikuspegia** da errealitatearen analisisian eta joera-ildoen eta Nafarroako gizartearen erronka nagusien azterketan erreferentziazko erakundea izatea, bai eta eratorritako politika publikoen plangintza eta ebaluaziorako tresna izatea ere.

Analisi eta Prospektiba Bulegoaren **xedea** Nafarroako errealitatea aztertzea da, egoera posibleak aurreikusteko eta politika publikoetan erabakiak hartzea optimizatzeko.

ARLO ESTRATEGIKOAK

Analisi eta Prospektiba
Bulegoaren jarduera hainbat arlo
estrategikotan oinarritzen da.

Hauexek dira:

1. ARLOA

1.

Errealitatea aztertzea

- Nafarroako gizartearen gai estrategikoak aztertzea.
- Departamentuen azterketa-eremuak koordinatzea.
- Adierazle eta informazio-iturri garrantzitsuak aztertzea.

2. ARLOA

2.

Prospektiba: etorkizuneko aukerak aztertzea egungo zantzuetan oinarrituta

- Zorroztasuna eta ebidentzia enpirikoa emanen duten ekintza prospektiboak egitea.

3. ARLOA

3.

Politika publikoak hobetzeko erabakiak hartzen laguntzea

- Berrikuntza publikoko prozesuetan laguntzea.
- Politika publikoen plangintzari eta ebaluazioari buruzko ezagutzak sustatzea eta zabaltzea departamentuetan.

ZEHARKAKO A ARLOA

4.

Hedapena, komunikazioa eta garapen teknologikoa

- Analisi eta Prospektiba Bulegoan lortutako emaitzak bistaratzea eta hedatzea.

ZEHARKAKO B ARLOA

5.

Prestakuntza

- Analisi eta Prospektiba Bulegoko taldearen etengabeko prestakuntza sustatzea.

ZEHARKAKO C ARLOA

6.

Sektore anitzeko aliantzak eta lankidetzak

- Foru Komunitateko nahiz kanpoko eragile ekonomiko eta sozialekin topaketetan parte hartzea, erronka berriei aurre egiteko eta aukerak probesteko.

1. ARLO ESTRATEGIKOA

ERREALITATEA AZTERTZEA

Helburu orokorrak

1.1 Nafarroako gizartearen aldaketa-joeretan eta garapenean eragina duten gai estrategikoak xehe aztertzea epe labur, ertain eta luzean.

Ekintzak

- Herritarrek zerbitzu publikoei buruz duten pertzepzioaren V. inkesta.
- Nafarroako pobreziari eta desberdintasunari buruzko IX. txostena.
- Nafarroako mendekotasunari buruzko VIII. txostena.
- Nafarroako desgaitasunari buruzko V. txostena.
- Nafarroako enpleguari buruzko hileko txostenak.
- Sakanako industriaren egoeraren diagnostikoa.
- “Nafarroako zerbitzu publikoen pertzepzioari buruzko inkesta” eta “Nafarroako egoera sozioekonomikoari buruzko inkesta” egiteko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa.
- Ongizate subjektiboari buruzko inkesta.
- Imagina Navarra.
- Sare sozialetako (X) gorroto-diskurtsoen azterketa.
- Erriberako erronkak eta aldagai estrategikoak identifikatzea.
- Salgaien trafikoaren azterketa, errepideko garraioa trenbideko garraiora aldatzea aztertzeke.
- “Benchmark” azterketa, Europako Iraupen Luzeko Zainketen (ILZ) funtsezko erreformei buruzkoa eta Nafarroarendako irakaspenak.
- Konfiantzari, jarrerei eta AAren erabilerari buruzko inkesta.
- Enpresa multilokalizatuei buruzko inkesta.
- Genero-indarkeria prebenitzeko AA ezartzeko bibliografia eta ekimenak berrikustea.



Helburu orokorrak

1.2 Nafarroako Gobernuko departamentu eta erakundeetan azterketa-eremuak modu eraginkorrean koordinatzea eta kudeatzea, ikuspegi integrala bermatzeko.

Ekintzak

- Nafarroako Behatokien eta antzeko unitateen topaketak.

Helburu orokorrak

1.3 Gobernuaren jarduna eta haren politika publikoak babesten dituzten adierazle eta informazio-iturri garrantzitsuak identifikatzea eta aztertzea.

Ekintzak

- Bizi-kalitatearen adierazle multidimentsionalari buruzko txostena.
- Eskubide sozialei eta enpleguari buruzko hileko datuen informazio-sistema mantentzea.
- Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren Dokumentazio Zentroaren webguneko datu-bankua mantentzea.

2. ARLO ESTRATEGIKOA

PROSPEKTIBA.

Etorkizuneko aukerak aztertzea egungo zantzuetan oinarrituta

Helburu orokorrak

2.1 Zorroztasuna eta ebidentzia enpirikoa emanen duten ekintza prospektiboak egitea.

Ekintzak

- “Etorkizuneko erronkak” dibulgazio-kanpainaren ikus-entzunezko diskurtsoa aztertzea.
- Nafarroako iparrorratza.
- “Nafarroa 2040” eta “Arrisku Globalak Nafarroan” azterlanak egiteko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa.



3. ARLO ESTRATEGIKOA

POLITIKA PUBLIKOAK HOBETZEKO ERABAKIAK HARTZEN LAGUNTZEA

Helburu orokorrak	Ekintzak	Helburu orokorrak	Ekintzak
3.1 Nafarroako Gobernuari berrikuntza publikoko prozesuetan laguntzea, bere ekimenen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko.	➤ GJHen aldeko Nafarroako Aliantza – barneko koordinazio guneak– (Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiari laguntzeko, aurrerantzean PPPKBEZN). ➤ Administrazioa sinplifikatzeko prozesuan laguntzea (esparru dokumentua) (PPPKBEZN). ➤ Kontuak emateko prozesua (PPPKBEZN).	3.2 Politika publikoen plangintzari eta ebaluazioari buruzko ezagutzak sustatzea eta zabaltzea departamentuetan, haien gaitasunak indartzeko.	➤ Ebaluaziorako Plan Zuzentzailearen ezarpenean eta garapenean parte hartzea (PPPKBEZN).

ZEHARKAKO A ARLOA

HEDAPENA, KOMUNIKAZIOA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOA

Helburu orokorrak

A.1 Analisi eta Prospektiba
Bulegoan lortutako emaitzak
bistaratzea eta hedatzea.

Ekintzak

- Analisi eta Prospektiba Bulegoaren webgune berria garatzea.
- Prentsa oharrak.
- Sare sozialetako jarduera.
- Albisteak.
- Jasotako informazio eskaerak.





ZEHARKAKO B ARLOA PRESTAKUNTZA

Helburu orokorrak

B.1 Analisi eta Prospektiba
Bulegoko taldearen etengabeko
prestakuntza sustatzea.

Ekintzak

- Kazetaritzako beka.
- Analisi eta Prospektiba Bulegoko langileek jasotako prestakuntza.
- Jardunaldietara joatea.
- Analisi eta Prospektiba Bulegoko langileek hitzaldiak, ponentziak eta abar ematea.

ZEHARKAKO C ARLOA

SEKTORE ANITZEKO ALIANTZAK ETA LANKIDETZA

Helburu orokorrak

C.1 Nafarroako Foru Komunitateko nahiz kanpoko eragile ekonomiko eta sozial nagusiekin topaketetan parte hartzea, erronka berriei aurre egiteko eta aukerak probesteko.

Ekintzak

- Analisi eta Prospektiba Bulegoak Nafarroako Gobernuaren kontseilu, batzorde eta mahaietan parte hartzea.
- Analisi eta Prospektiba Bulegoak topaketak eta bilerak egitea eragile ekonomiko eta sozialekin.
- Analisi eta Prospektiba Bulegoak beste erakunde batzuek gidatutako proiektuetan parte hartzea.
- Hitzarmenak eragile ekonomiko eta sozialekin.



EKINTZEN AZALPENA

ETA XEHETASUNAK



1.1 HN.

Nafarroako gizartearen aldaketa-joeretan eta garapenean eragina duten gai estrategikoak xehe aztertzea epe labur, ertain eta luzean.

1. Herritarrek zerbitzu publikoei buruz duten pertzepzioari buruzko V. inkesta	2. Nafarroako pobreziari eta desberdintasunari buruzko IX. txostena	3. Nafarroako mendekotasunari buruzko VIII. txostena	4. Nafarroako desgaitasunari buruzko V. txostena
2025ean, landa-lana egin zen (telefono bidezko 1.600 elkarrizketa), eta, ondoren, Analisi eta Prospektiba Bulegoak Nafarroan zerbitzu publikoak	Nafarroako pobreziari eta desberdintasunari buruzko urteko IX. txostena egitea, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko	Nafarroako mendekotasunari buruzko urteko VIII. txostena egitea, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko	Nafarroako desgaitasunari buruzko urteko V. txostena egitea, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko
emateari buruz herritarrek duten pertzepzioari buruzko V. inkesta aztertu zuen. Abenduan argitaratu zen inkestaren lehen zatia, zehazki <i>kalitate demokratikoarekin, erakundeekiko konfiantzarekin eta arazo nagusiekin</i> lotutakoa.	eta Enpleguko Departamentuarekin batera.	Departamentuarekin batera.	Departamentuarekin batera.

5. Nafarroako enpleguari buruzko hileko txostenak

Nafarroako enpleguaren bilakaerari buruzko txostenak egitea hileroko, enplegu eskatzaileen, kontratuen eta Gizarte

Segurantzako afiliazioaren datuetan oinarrituta, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuarekin batera.

6. Sakanako industriaren egoeraren diagnostikoa

Analisi eta Prospektiba Bulegoak Sakana Garapen Agentziarekin (SGA) sinatu zuen hitzarmenaren esparruan,

Sakanako industriaren diagnostikoari buruzko txosten global bat egin da. Txosten horretan honako gai hauek jaso dira, besteak beste: enpresa-ehunaren analisi makroekonomikoa; ekonomia sozialaren lehiakortasun eta karakterizazio faktoreak; azken bosturtekoko joerak eta lurraldeko industriaren AMIA; Europako antzeko lurraldeen benchmarking-a eta sustapen-politikak; eta aurre egin beharreko erronken azalpena.

7. “Nafarroako zerbitzu publikoen pertzepzioari buruzko inkesta” eta “Nafarroako egoera sozioekonomikoari buruzko inkesta” egiteko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa

Analisi eta Prospektiba Bulegoak bi loteko kontratu bat adjudikatu eta gauzatu zuen 2025ean, bi inkestatarako landa-lana egiteko: “Nafarroako zerbitzu publikoen pertzepzioari buruzko inkesta” eta “Nafarroako egoera sozioekonomikoari buruzko inkesta”. Lehenengo

inkestaren kasuan, bosgarren edizioa izan zen, eta herritarrei erakundeekiko konfiantzari buruz eta zerbitzu publikoak emateari buruz duten pertzepzioaren gainean galdetzen zaie. Bigarren inkesta sortu berria da, eta asmoa da urtero gai desberdinei heldzea, gizarte-joerak detektatzeko, gaurkotasuneko gaiekiko portaerak eta jarrerak behatzeko, eta Nafarroako gizarteari eragiten dioten kezkak eta beharrak identifikatzeko. Zehazki, 2025ean inkestak Nafarroako herritarren identitatea eta hura osatzen duten funtsezko elementuak izan zituen ardatz. Aurreikusten da 2026aren hasieran aurkeztea inkesta horren analisiaren emaitza.

8. Ongizate subjektiboari buruzko inkesta

Panel bidez egindako inkesta oinarri hartuta, proiektu horrek Ongizate Adierazle subjektibo bat sortzen du. Foru Komunitateko herritarrek ongizateari buruz duten pertzepzio indibiduala aztertzen duen txosten bat

sortzen da, pertsonen bizi-kalitatea hobetuko duten politika publikoak garatze aldera.

Proiektuak honako helburu hauek ditu: biztanleen ongizate-maila subjektiboa ulertzea, bizitzarekiko gogobetetasuna eta eguneroko emozioak aztertuz; bizi-kalitateari eragiten dioten faktoreak identifikatzea; egoera sozial eta politikoaren pertzepzioa ebaluatzea, faktore horiek ongizate pertsonalean nola eragiten duten jakiteko; eta etxebizitza eskuratzearekin, diru-sarrerekin, osasun mentalekin eta harreman pertsonalekin lotutako desberdintasunak eta ahuleziak detektatzea.

9. Imagina Navarra

Imagina Navarra proiektuak, elkarrizketaren bidez, egungo ahotsek 25 urte barru komunitatearen etorkizuna nola proiektatzen duten aztertzea du helburu. Elkarrizketa sakon eta irisgarrien bidez, egungo herritarrengan eta etorkizuneko

belaunaldietan eragina izan dezakeen hausnarketa kolektiboa sortzen da. Proiektuak lau helburu ditu: Nafarroaren etorkizunari buruzko eztabaida publikoa sortzea, hainbat arlotako liderrak, adituak eta figura nabarmenak inplikatzuz; publiko zabalago batengana helduko den multimedia-eduki irisgarria sortzea (bideo-podcastak edo podcastak); elkarriketetan partekatutako ikuspegien lekukotza izanen den liburu transkribatu bat egitea; eta Nafarroako etorkizuneko erronkei eta aukerei buruzko berrikuntza, gogoeta eta elkarriketarako plataforma bat eskaintzea.

10. Sare sozialetako (X, lehen Twitter) gorroto-diskurtsoen azterketa

Azken urteotan Nafarroan sare sozialen bidez (berriz) sortzen ari diren gorroto-diskurtsoak aztertu dira, bereziki X-n. Aztertutako arloak honako hauek izan dira zehazki: diskurtso xenofoboak eta erlijio-arrazoiek eragindakoak;

misoginoak eta LGTBI kolektiboen aurkakoak; desgaitasun-arrazoiek eragindakoak; eta ideologia edo nortasun politikoek eragindakoak.

Egindako lanaren helburuak honako hauek dira: gorroto-diskurtso horien onlineko presentzia neurtzea; zer gairi buruz hitz egiten den identifikatzea, etiketatzea eta deskribatzea; sare sozialetako gorroto-diskurtsoen jomuga diren kolektiboei buruz zer esaten den baloratzea, zer profil duten errudunek eta diskurtsoak nortzuk egiten dituzten (biktimak eta biktimarioak) baloratzea, zer onargarritasun- edo gaitzespen-maila dagoen, zer sektoretan dagoen gorroto-diskurtso gehiago eta zer albiste mota dakartzaten; Nafarroan horrelako gorroto-mezuak neurri handiagoan edo txikiagoan sortzen diren zonarik dagoen ezagutzea, ahal den neurrian; eta jarduera-ildoak proposatzea gorroto-diskurtsoei aurre egiteko Nafarroako Gobernuaren estrategia digitalari begira.

11. Erriberako erronkak eta aldagai estrategikoak identifikatzea

Analisi eta Prospektiba Bulegoak udaberrian Ribera Enpresa Elkartearekin (AER) sinatu zuen hitzarmenaren esparruan, azterlan prospektibo bat egin da Nafarroako Erriberaren egungo eta etorkizuneko erronkak eta aldagai estrategikoak identifikatzeko, eskualdearen hazkunde jasangarria finkatze aldera gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik. Azterlan horrek berrikuntza bat sartu zuen: prospektiba aplikatuko metodologia bat. Hala, egungo egoeraren diagnostikoak etorkizuneko proiektzioa du, eta joeren azterketa prospektiboa egiten da.

12. Salgaien trafikoaren azterketa, errepideko garraioa trenbideko garraiora aldatzea aztertze

Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin, Analisi eta Prospektiba Bulegoak azterlan bat egin zuen Nafarroan errepideko garraioa trenbideko garraiora aldatzeko aukera aztertze. Txostenak honako gai hauek jorratzen ditu, besteak beste: egungo salgaien trafikoaren eta trenbideko garraiora aldatzeko aukeraren azterketa; trafikoak erakartzeko garatu beharreko jarduketaren proposamena, bereziki azpiegiturei dagokienez; eta etorkizuneko agertokien azterketa, dagoeneko martxan dauden jarduketaren garapena eta proposatutako beste jarduketa batzuk kontuan hartuta.

Txostena egiteko, egungo eta etorkizuneko konexioak hartu dira kontuan, batez ere trenbide-autobideak eta portu-helmugak. Garraio-operadoreak eta logistikoak kontuan

hartu dira Nafarroako salgaien egungo trafikoa eta etorkizuneko trafikoen aurreikuspena, garraiatzen diren salgaien tipologia, jatorria/helmuga, garraiobidea eta maiztasunak, kargatzeko lekua eta abar identifikatzeko.

13. “Benchmark” azterketa, Europako iraupen luzeko zainketen (ILZ) funtsezko erreformei buruzkoa eta Nafarroarendako irakaspenak

Analisi eta Prospektiba Bulegoak Europako iraupen luzeko zainketen funtsezko erreformen “benchmark” azterketa egin du, eta Nafarroarendako irakaspen posibleak aztertu ditu, Europako beste herrialde batzuk erreformak nola egiten ari diren jakiteko, interes handieneko eremuetan esperientzia garrantzitsuak identifikatzeko eta Nafarroako testuinguruan duten aplikagarritasuna aztertzeke.

Txosten hori herritarrei zerbitzu hobea emateko funtsezkoak diren politiken

joerak identifikatzeko eta etorkizunean erantzun egokiagoak emateko zerbitzuak konfiguratzeko moduari buruzko proposamenen garapenaren esparruan kokatzen da. Ildo horretan, biztanleriaren zahartzeak gero eta garrantzi handiagoa du, eta ondorio esanguratsuak ditu iraupen luzeko zaintza sisteman.

14. Konfiantzari, jarrerei eta AAren erabilerari buruzko inkesta

Analisi eta Prospektiba Bulegoak adimen artifizialari eta Nafarroako enpleguaren etorkizunari buruzko online inkesta bat egin du lehen aldiz. Inkestaren helburua zera izan da: jakitea zein egoeratan dagoen Nafarroa beste eskualde eta herrialde batzuekin alderatuta, abangoardiako gai batean, alegia, adimen artifizialean, lanaren esparruan duen ezarpena eta etorkizuna ebaluatu ondotik.

15. Enpresa multilokalizatuei buruzko inkesta

Telefono bidezko inkestak egin zaizkie Nafarroan establezimendu bat baino gehiago duten enpresei (multilokalizatuak), Nastat-eko Nafarroako Enpresen Direktorioan eskuragai dauden datuak berresteko, establezimenduko data jakin bateko enpleguari buruzko datuak lortzeko, eta informatzailearekin etorkizuneko eguneratzeetarako harremanetan jartzeko datuak eskuratzeko.

16. Genero-indarkeria prebenitzeko AA ezartzeko bibliografia eta ekimenak berrikustea

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak ebazpen bat onetsi zuen 2025eko martxoan, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari eskatu baitzitzaion “azterlan bat egin dezala Nafarroan genero-indarkeria prebenitzeko adimen artifiziala

ezartzeko”. Horretarako, Analisi eta Prospektiba Bulegoa arduratu zen erreferentziazko bibliografia bilatzeaz, bai eta aldez aurreko gogoeta egiten laguntzeko nazioko eta nazioarteko beste ekimen interesgarri batzuk identifikatzeaz ere. Helburua izan da bibliografia eta ekimenak identifikatzea, adimen artifizialean oinarritutako esperientzia berritzaileak genero-indarkeria goiz detektatzeko garatu ahal izateko.

1.2 HN.

Nafarroako Gobernuko departamentu eta erakundeetan azterketa-eremuak modu eraginkorrean koordinatzea eta kudeatzea, ikuspegi integrala bermatzeko.

17. Nafarroako behatokiaren topaketa

Herritarren zerbitzu publikoak hobetzeko aliantzak ezartzeko eta unitate bakoitzaren jarduera zehatz-mehatz ezagutzeko helburuarekin, urtarrilaren 23an, ekainaren 6an eta azaroaren 20an Nafarroako Gobernuko behatokiaren edo antzeko unitateen bigarren, hirugarren eta laugarren topaketak egin ziren, hurrenez hurren. Sortutako sinergia interesgarriak 2026an baterako proiektuetan sakontzeko topaketa gehiago egiteko apustu bateratuan islatu dira.



1.3 HN.

Gobernuaren jarduna eta haren politika publikoak babesten dituzten adierazle eta informazio-iturri garrantzitsuak identifikatzea eta aztertzea.

18. Bizi Kalitatearen Adierazle Multidimentsionalari (BKAM) buruzko txostena

2025eko Bizi Kalitatearen Txostena egin da. Txosten horretan, Bizi Kalitatearen Adierazle Multidimentsionalaren (BKAM) estatistika esperimentala osatzen duten 9 alderdiek Nafarroan duten bilakaera azaldu eta zehazten da. Adierazle hori Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) urtero argitaratzen du. Nafarroa BKAMren lehen postuan dago 2008. urtean martxan jarri zenetik.

19. Eskubide sozialei eta enpleguari buruzko hileko datuen informazio-sistema mantentzea

Eskubide Sozialetako Departamentuaren datawarehouse-aren eta Nafar Lansareren SISPE sistemaren ustiapenaren bidez, desgaitasunari, mendekotasunari, enpleguari edo errenta bermatuari buruzko hileko datu-baseen informazio-sistema ordenatua mantentzen da. Sistema hori informazio-iturri gisa erabili da Analisi eta Prospektiba Bulegoak 2025ean Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren berezko gai horiei buruz egin zituen txosten, azterlan edo txostenetarako.

20. Gizarte Dokumentazioaren Zentroaren webguneko datu-bankua mantentzea

Datuak ateratzea eta desgaitasunari, mendekotasunari, enpleguari edo errenta bermatuari buruzko adierazleak kalkulatzeko, ondoren Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuari atxikitako Gizarte Dokumentazioaren Zentroko webguneko datu-bankuan argitaratzeko.

2.1 HN.

Zorroztasuna eta ebidentzia enpirikoa emanen duten ekintza prospektiboak egitea.

21. “Etorkizuneko erronkak” proiektuaren dibulgazio-kanpainaren ikus-entzunezko diskurtsoa aztertzea

2024an egin zen “Etorkizuneko erronkak” dibulgazio-kanpainak informazio interesgarri asko eman zuen (1.400

minutu inguruko ikus-entzunezko edukia). Horregatik, hainbat gairi buruzko ikus-entzunezko diskurtso hori aztertu zen, arlo bakoitzeko adituen ikuspegiak jaso ziren eta ekarpen horiek dokumentu sintetiko batean bildu ziren. Dokumentu horrek

bi alderdi ditu: a) pertsona bakoitzari grabatutako eduki osoaren analisia, gaika multzokatuta; b) komunikabide bakoitzaren programetan edo podcastetan emandako edukiaren analisia.

22. Nafarroako iparrorratza

Proiektu horren helburua da herritarrei irekitako aginte-koadro bat ezartzea, Nafarroako adierazleak Europako beste eskualde batzuekin alderatuta ikusteko. Eurostaten adierazleak biltzen ditu, informazio garrantzitsu eta eguneratuarekin (33 oraindik baieztatu gabe daude), eta NUTS2 eskualdeka eta herrialdeka konpara daitezke.

EDZNrekin elkarlanean ari gara 2026ko lehen hilabeteetan Analisi eta Prospektiba Bulegoaren webgunean bistaratzeko.

23. “Nafarroa 2040” eta “Arrisku Globalak Nafarroan” azterlanak egiteko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa

Analisi eta Prospektiba Bulegoak “Nafarroa 2040” eta “Arrisku Globalak Nafarroan” azterlan prospektiboak egiteko kontratu bat lizitatu du 2025ean. Helburua da Foru Administrazioaren estrategia-aurrerapenerako gaitasuna indartzea, epe luzeko erabakiak hartzeko ezagutza erabilgarria sortzearen bidez. “Nafarroa 2040” txostenak, prospektiba egituratu gisa, ikuspegi partekatua, joeren azterketa, agertokiak, erronka estrategikoak eta politika publikoko orientabideak biltzen ditu. Bestalde, “Arrisku

globalak Nafarroan” txostenaren helburua da Nafarroako ongizatean, jasangarritasunean eta kohesioan eragina izan dezaketen mehatxu eta ahulezia globalak identifikatzea.

2026an bi txostenak garatzean, genero-ikuspegia eta Nafarroako eremuen ikuspegia kontuan hartuko dira, baita aurreikuspenek Foru Komunitatean duten eragina ere. Txosten horiek egiteko, Nafarroako Gobernuako departamentuek parte hartuko dute, bai eta aztergai diren arloetan adituak diren gizarte zibileko eta mundu akademikoko beste pertsona batzuek ere, azterlan bakoitzaren prozesuetan lortutako informazioak jakinarazteko eta kontrastatzeko.

3.1 HN.

Nafarroako Gobernuari berrikuntza publikoko prozesuetan laguntzea, bere ekimenen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko.

24. GJHen aldeko Nafarroako Aliantza (barneko koordinazio guneak)

PPPKBEZNrekin elkarlanean aritu gara 2030 Agendaren gobernantza hedatzeko, haren jarraipena egiteko eta garatzeko proposamena diseinatzen. Horretarako, GJHen aldeko Nafarroako Aliantzarekin jarraitu da. Aliantza hori Foru Gobernuaren, udalerrien, hirugarren sektoreko erakundeen, akademiaren, enpresen eta herritarren arteko harremanetarako eta lankidetzarako etorkizuneko gunea izanen da, GJHak politika publikoetan txertatzeko eta lankidetzan ezartzeko. 2025ean, 2030 Agenda abian jartzeko plan estrategiko bat

aurkeztu da, eta 2030 Aliantza garatuko duen laguntza teknikoa izendatzeko lizitazio mahaian parte hartu da. Halaber, GJHekin lotutako proiektu enblematikoen lehen urratsei ekin zaie. *Open Government Partnership*-erako erronkari buruzko proposamena ere egin da, eta erakundeentzako 2030 Agenda Garatzeko Gida egiten lagundu da. Azkenik, 2030 Agendaren sentsibilizazioari eta hedapenari dagokienez, lagundu dugu antzezlan bat banatzen, newsletter bat abian jartzen, 2030 Agendaren atari berria diseinatzen eta sare sozialetan komunikazio-kanpaina bat egiten, GJHen aldeko Aliantza aurkezteko eta atxikimendu berriak lortzeko.

25. Administrazioa sinplifikatzeko prozesuan laguntzea

PPPKBEZNrekin elkarlanean aritu gara administrazioa sinplifikatzeko 2025eko plan operatiboa ezartzeko eta, ondoren, dagokion txostena egiteko.

26. Kontuak emateko prozesua

Prozesu horren helburua da Foru Gobernuak abian den legegintzaldirako hartu dituen jarduketak eta konpromisoak monitorizatzea, 2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu progresista eta pluralerako Programa Akordioaren bidez. 2025ean, honako jarduketa hauek egin dira: konpromisoen bilakaerari buruzko informazioa biltzea Nafarroako Gobernuko departamentuekin lankidetzan; urteko txosten bat egitea; eta dibulgazio materialak eta bistaratzeko tresnak garatzea.

3.2 HN.

Politika publikoen plangintzari eta ebaluazioari buruzko ezagutzak sustatzea eta zabaltzea departamentuetan, haien gaitasunak indartzeko.

27. Ebaluaziorako Plan Zuzentzailearen ezarpenean eta garapenean parte hartzea

PPPKBEZNrekin elkarlanean aritu gara Ebaluaziorako Plan Zuzentzailea ezartzeko eta garatzeko, hainbat ekintzaren bidez: bilerak Nafarroako Gobernuko zortzi departamentutako zuzendaritza nagusiekin, plana ezagutarazteko; ebaluagarritasun-txostenak egitea; hainbat unitate teknikori aholkularitza ematea; politika publikoen ebaluazioko adituaren I. ikastaroa abian jartzea NUPekin lankidetzan; Nafarroako Gobernuaren Ebaluazio Sarea abian jartzea; dokumentu teknikoak egitea,

ebaluazioaren arloko arau-esparru berri baten sorrera erreformatzeko; eta ebaluazioaren esparruarekin lotutako hainbat jardunalditan parte hartzea.



A.1 HN.

Analisi eta Prospektiba Bulegoan lortutako emaitzak bistaratzea eta hedatzea.

28. Analisi eta Prospektiba Bulegoaren webgune berria garatzea.

2025ean, EDZNrekin batera hasi genuen Analisi eta Prospektiba Bulegoaren egungo webgunea berregituratzeko prozesua: <https://analysisyprospectiva.navarra.es/eu/>. 2026ko lehen hilabeteetan bertsio berria aurkeztea espero da.

29. Prentsa oharrak

2025ean, 14 prentsa ohar argitaratu dira Analisi eta Prospektiba Bulegoan egindako ekitaldi edo jarduerekin lotuta. Nagusiki, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuko Komunikazio Kabinetearen laguntzarekin egin dira.

30. Sare sozialetako jarduera

Analisi eta Prospektiba Bulegoak profilak ditu X-n eta LinkedIn-en. Azken hori Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuarekin partekatzen du. 2025ean 29 txio argitaratu ziren. Argitalpenen edukia argitaratzen diren azterlan eta txostenei edo Bulegoak egiten dituen jarduerari buruzkoa da.

31. Albisteak

Analisi eta Prospektiba Bulegoak, bere webgunean, “Albisteak” izeneko atal bat du, eta bertan bulegoari buruzko edo haren jarduerarekin lotutako albisteak argitaratzen dira. 2025ean 19 albiste argitaratu dira.

32. Jasotako informazio eskaerak

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuarekin adostutakoari jarraiki, 2025ean enpleguaren arloan jasotako informazio eskaerei erantzun zitzaien. Guztira 36 informazio eskaera jaso ziren. Hona hemen horien jatorria: 29 barnekoak, hau da, Nafarroako Gobernuak, eta 7 kanpokoak: bi partikularrenak, bi tokiko erakundeenak (udal bat eta mankomunitate bat) eta hiru beste entitate batzuenak.

B.1 HN.

Analisi eta Prospektiba Bulegoko taldearen etengabeko prestakuntza sustatzea

33. Kazetaritzako beka

Pertsona berri bat kontratatzea
Analisi eta Prospektiba Bulegoko prestakuntza bekarako. Kazetaritzan, Ikus-entzunezko Komunikazioan edo Publizitatean eta Harreman Publikoetan graduatutako edo lizentziatutako pertsonen zuzenduta dago.

34. Analisi eta Prospektiba Bulegoko langileek jasotako prestakuntza.

- **Adimen artifiziala: sarrera aurreratua.**
Antolatzailea: Aventura Digital Navarra.
Urtarrilaren 22tik otsailaren 10era.
20 orduko iraupena.
Online modalitatea.
- **AA egunik egun aplikatu.**
Antolatzailea: Aventura Digital Navarra.
Otsailaren 11tik otsailaren 24ra.
20 orduko iraupena.
Online modalitatea.
- **Prospektiba.**
Antolatzailea: Analisi eta Prospektiba Bulegoa.
Otsailaren 27tik apirilaren 28ra.
30 orduko iraupena.
Aurrez aurreko modalitatea.

- **Microsoft Word 2016. Aurreratua.**
Antolatzailea: Administrazio Publikoaren Institutu Nazionala.
Martxoaren 19tik maiatzaren 20ra.
30 orduko iraupena.
Online modalitatea.
- **Lehen sorospenak.**
Antolatzailea: Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua.
Martxoaren 24tik maiatzaren 25era.
30 orduko iraupena.
Online modalitatea.
- **Tableau.**
Antolatzailea: Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza Nagusia.
Ekainaren 13a, abuztuaren 8a eta irailaren 12a.
7,5 orduko iraupena.
Online modalitatea.

- **Etorkizuna esploratzen: Strategic Foresight-aren hastapenak.**
Antolatzailea: Analisi eta Prospektiba Bulegoa.
Azaroaren 4tik abenduaren 12ra.
40 orduko iraupena.
Online eta aurrez aurre.
- **Nafarroako Unibertsitate Publikoko Politika Publikoen Ebaluazioko adituaren diploma.**
Antolatzailea: Unibertsitatea-Gizartea Fundazioa.
2025eko azaroaren 3tik 2026ko maiatzaren 31ra.
16 ECTS kreditu.
Online modalitatea.

35. Jardunaldietara joatea

➤ *Summit Axiom 2025.*

Antolatzailea: Axiom taldea.
Otsailaren 28a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *Inpaktu-ekonomia lortzeko Nafarroaren bidea.*

Antolatzailea: Nafarroako Kutxa Fundazioa eta La Caixa Fundazioa, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan.
Apirilaren 8a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *AA biltzar nazionala.*

Antolatzailea: Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusia.
Maiatzaren 6a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *Datu irekien jardunaldia.*

Antolatzailea: Gardentasuna eta Gobernu Irekia.
Maiatzaren 19a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *Eraldaketa Digitaleko Sarearen I. Jardunaldia: datuak.*

Antolatzailea: Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza Nagusia.
Ekainaren 16a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *Longebitate berrien foroa.*

Antolatzailea: Nafarroako Kutxa Fundazioa.
Irailaren 16a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *Nafarroako landa eremuetako biztanle berriei buruzko jardunaldia.*

Antolatzailea: RuralNav – Erronka demografikoari eta despopulazioari aurre egiteko Landa Berrikuntzako Programa.
Irailaren 26a. Aurrez aurrekoa: Castejon.

➤ *Nekazaritzako elikagaien industriaren hazkundearen gakoak Nafarroan.*

Antolatzailea: Nafarroako Industri Ingeniarien Elkargo Ofiziala, Institución Futuro, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Industrien Elkartea eta Aragoi, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ingeniarien Elkargo Ofiziala.
Urriaren 2a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *Smart Green Mobility 2025.*

Antolatzailea: NAITEC zentro teknologikoa eta Nafarroako Gobernua.
Urriaren 16a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *Estatistika datu, umore eta adimenarekin.*

Antolatzailea: Nastat.
Urriaren 20a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *Klima-aldaketara egokitzeko proiektua.*

Antolatzailea: LIFE-IP NAdapta-CC.
Urriaren 24a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *ProtopIA.*

Antolatzailea: BBK Kuna.
Urriaren 30a. Aurrez aurrekoa: Bilbo.

➤ *Imagina Iruña.*

Antolatzailea: Iruñeko Udala.
Urriaren 31. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *Nafarroako trenbide intermodalitateari buruzko mintegia.*

Antolatzailea: Nafarroako Ganbera eta Nafarroako Gobernua.
Azaroaren 5a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren (NABI) 30. urteurrena.*

Antolatzailea: NABI.
Azaroaren 5a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *Teknologia, Demokrazia eta Gizarteari buruzko I. Jardunaldia. Adimen artifizialak kalitate demokratikoan dituen erronkak eta aukerak.*

Antolatzailea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
Azaroaren 14a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *Enpleguaren etorkizuna Nafarroan.*

Antolatzailea: Nafarroako Enpresarien Konfederazioa eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua (SNE-LN).
Azaroaren 18a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

➤ *Demokratarik gabeko demokrazia.*

Antolatzailea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
Abenduaren 11. Aurrez aurrekoa: Iruña.

36. Analisi eta Prospektiba Bulegoko langileek hitzaldiak, ponentziak eta abar ematea

- **“Zer da Analisi eta Prospektiba Bulegoa”. “Ikerketarako proiektuak eta diseinuak” irakasgaia, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia Aplikatuko Graduan.**
Antolatzailea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa – NUP.
Otsailaren 20a. Aurrez aurrekoa: Iruña.
- **“Laguntzaile digitalak erabiltzeko aukerak”.**
Antolatzailea: Analisi eta Prospektiba Bulegoa.
Otsailaren 25a. Aurrez aurrekoa: Iruña.
- **“Bizikidetza Nafarroan: abiapuntuak ulertzeko gakoak”, Gustura – Bizikidetzari modu integralean heltzeko eredu berritzailea proiektua abiarazteko jardunaldia.**
Antolatzailea: Areté Activa.
Maiatzaren 16a. Aurrez aurrekoa: Iruña.

- **“Zer da Analisi eta Prospektiba Bulegoa”. “Ikerketa mintegia” irakasgaia, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia Aplikatuko Graduan.**
Antolatzailea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa – NUP.
Apirilaren 2a.
Aurrez aurrekoa: Iruña.
- **“Hitz egin dezagun ebaluazioaz” X. topaketa birtuala.**
Antolatzailea: Guatemalako Gobernua.
Urriaren 3a.
Online.
- **Administrazioko politika publikoak ebaluatzeko jardunbide egokiak eta esperientziak partekatzea.**
Antolatzailea: Estatuko Ebaluazio Sarea (REDEVAL).
Azaroaren 4a.
Aurrez aurrekoa: Valentzia.

- **I. Ikastaro birtuala: “Politika publikoen ebaluazioko aditua”.**
Antolatzailea: Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusia (Nafarroako Gobernua) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
Azaroaren 24a.
Online.

C.1 HN.

Nafarroako Foru Komunitateko nahiz kanpoko eragile ekonomiko eta sozial nagusiekin topaketetan parte hartzea, erronka berriei aurre egiteko eta aukerak probesteko.

- 37. Analisi eta Prospektiba Bulegoak**
Nafarroako Gobernuaren kontseilu, batzorde eta mahaietan parte hartzea

 - Agenda 2030 Departamentuarterko batzordea.
 - Finantzaketa Jasangarriaren Departamentuarterko Batzordea.
 - Berdintasunerako Departamentuarterko Batzordea.
 - Gazteriaren Departamentuarterko Batzordea.
- Berdintasunerako Departamentuarterko Batzordea.
 - Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra.
 - Agerraldia Nafarroako Parlamentuan, *AA Nafarroan: aukerak, erronkak eta inpaktua eremu publikoan* txostena aurkezteko.
 - Agerraldia Nafarroako Parlamentuan, Estellerriaren garapen sozioekonomikoari buruz.
 - Nafarroako Estatistika Kontseilua.
- Euskarabideko Gobernu Kontseilua.
 - Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua.
 - Nafarroako Segurtasun Mahaia.
 - Nafarroako Politika Publikoen Plangintza, Jarraipen eta Ebaluaziorako Sarea.
- Despopulazioaren arriskua neurtzeko dimentsio anitzeko adierazlea aurkeztea, Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin batera, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez.
 - Nafarroa Markaren aurkezpena Altsasun eta Tafallan.

38. Analisi eta Prospektiba Bulegoak topaketak eta bilerak egitea eragile ekonomiko eta sozialekin

- 2025-2026 ikasturtea irekitzeko ekitaldia. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
Aurrez aurrekoa: Iruña.
- Espainiako Prospektiba Elkartearen aurkezpena.
Aurrez aurrekoa: Madril.
- Nafarroako Joeren XI. Panela. Cociudadana.
Aurrez aurrekoa: Iruña.
- Ribera Enpresa Elkartearen (AER) sariaren XXIII. edizioa.
Aurrez aurrekoa: Castejon.
- Nafarroako Kutxa Fundazioko Innova Social Laben lehen fasearen emaitzak aurkeztea. Aurrez aurrekoa: Iruña.
- BENCOren Nafarroako Jasangarritasun Barometroaren aurkezpena. Aurrez aurrekoa: Iruña.

- Lan topaketa Kataluniako Generalitateko Direcció General d'Estratègia, Anàlisi i Prospectiva-rekin.

Aurrez aurrekoa: Bartzelona.

39. Analisi eta Prospektiba Bulegoak beste erakunde batzuek gidatutako proiektuetan parte hartzea

- Bizikidetzaren arloko Gustura proiektuaren talde eragilean parte hartzea, Areté Aktivak kudeatuta.
- Nafarroako despopulazioaren arriskua neurtzeko dimentsio anitzeko adierazlea sortzeko lantaldean parte hartzea.
- Nafarroako demografia, enplegu eta ekonomia aurreikuspenei buruzko lantaldean parte hartzea.
- Nafarroako Estrategia Soziosanitario berria egiteko prozesuan parte hartzea.

40. Hitzarmenak eragile ekonomiko eta sozialekin

➤ Hitzarmena Ribera Enpresa Elkartearekin.

Analisi eta Prospektiba Bulegoak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuen 2025eko martxoan Ribera Enpresa Elkartearekin (AER), Erriberako enpresa-ehunaren lehiakortasuna indartzeko, sortzen ari diren joerak eta hazkunde-nitxoak detektatzearen bidez, bai eta enpresa-ehunarekin sareak eta aliantzak sustatzeko ere, erabaki estrategikoak hartzeko.

➤ Hitzarmena Sakana Garapen Agentziarekin.

Analisi eta Prospektiba Bulegoak, 2025eko uztailean, lankidetzaz hitzarmena sinatu zuen Sakana Garapen Agentziarekin (SGA), eremu horren garapen sozioekonomikoa bultzatzeko informazioa trukatzearen bidez eta Sakanaren eta haren gizarte- eta enpresa-sarearen garapena aztertzearen bidez.



OFICINA
DE ANÁLISIS Y
PROSPECTIVA
DE NAVARRA

NAFARROAKO
ANALISI ETA
PROSPEKTIBA
BULEGOA



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Departamento de Presidencia e Igualdad
Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua

